



## Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2018ko maiatzaren 17ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Hondakinak biltzeko zerbitzua:** Gai hauek aztertu dira: trantsizio-aldia, zehaztutako eginkizunen betekizunaren jarraipena, ibilbide eta pisaketen inguruko informazioa, herritarrentzako aplikazioa, jaiegunen egutegia, edukiontziak garbitzeko egutegia, 2018an bilketa-edukiontziak berrezartzeko hornidura, Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean jarritako errekurtoa.
- **Hondakinei buruzko udal-ordenantza:** Beste zirriborro bat bidaliko da.
- **Zerbitzuaren barne-araudia:** Figura juridikoaren inguruko erabakiaren arabera egokitu eta onetsiko da.
- **Industrialdeetan hondakinak kudeatzeko proiektua:** Dagoeneko ebatzi da laguntza teknikoa kontratatzeko lehiaketa. Kontratua noiz sinatuko zain daude.
- **Hondakin handiak biltzeko lehiaketa:** Kontratuaren lau hilabeteko luzapena adostu da egungo adjudikaziodunarekin, urriaren 1ean zerbitzu berria hasten den arte.
- **Etxeko olioaren gaikako bilketaren kanpaina:** Kanpainaren aurreikuspenen eta egoeraren inguruko informazioa eman da.
- **2018-2019 ikasturteko Euronet 50/50:** Aurreko urtean parte hartzeko gonbidapenari uko egin zioten haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskola publikoak berriro gonbidatzeko aukera eskaintzen da.
- **2017ko memoria:** Posta elektronikoa bidez bidaliko da baloratu dadin.
- **Hondakinen tratamenduari buruzko 2017ko likidazioak:** tamaina txikikoak, organikoak, errefusa eta handiak: Datozen egunotan jakinaraziko zaizkie likidazioak udalei.
- **Laguntza publikoak:** Tokiko administrazio publikoentzako Energiaren Euskal Erakundearen laguntza; Udalsarea 21en Berringurumena programa; Eusko Jaurlaritzaren paisaia planak.
- **Hurrengo bilerak:** Erosketa eta kontratazio publiko berdeari eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Lege berriari buruzko prestakuntza-jardunaldia: ostegunean, maiatzaren 31n, 09:00etatik 11:00etara; figura juridikoaren berrikuspenari buruzko ondorioei buruzko aurkezpena: ostegunean, ekainaren 7an, 10:00etatik 12:00etara; batzordea: ostegunean, ekainaren 21ean 09:00etatik 11:00etara.